



# **Covid-19aren eraginak kultura alorrean**

**EKE-ko elkarte kideei zuzendu  
idatzizko kontsulta**

**2020ko apirila eta  
ekaina artean eginga**

Izurritearen eragin latza	3
Covid-19 izurriteak ekarri hetsialdiaren lehen egunetan berean, EKE-k bi lan ardatz bultzatu ditu	4
EKE-ko elkarte kideei zuzendu idatzizko kontsulta	5
Proiektuak	6
Egutegia	8
Eskoletako ekitaldiak	9
Ikusgarrigintza	10
Festibalak eta beste gertakariak	11
Diru baliabideak	12
Egitasmoari lotu gastuak	13
Mezenasgoa eta dirulaguntza pribatuak	14
Elkarte enplegatzaileak	14
Berriz hastea	15
EKE-ren proposamenak	16
Galdeketa	18

## Izurritearen eragin latza


Sorkuntza artistikoa, kulturen praktika eta euskuragarritasuna laguntzen dituzten ekintza ezberdinak balioesteko asmoz, EKE-k ikusgarritasun, literaturan, ondare immaterialean, eta arte bisualen alorrean ari diren Ipar euskal Herriko kultura elkarteak sostengatzen ditu. Urtero, ehun bat elkarte ezberdin laguntzen ditu beren proiektuak gauzatzen.

Badakigu koronabirusaren osasun krisia honek kultura eta arte alorrean jadanik eragin handiak dituela eta geroan ere ukanen dituela. Ondorioz, apiril hondarrean, EKE-k inkesta bat abiatu du, 2020an proiektu bat duten elkarte-kideei buruz zuzendua dena.

Ezin da oraino ikusi izurriteak euskal kultura eragileentzat dakartzan ondorioak bainan jadanik tendentzia batzu begibistan ditugu. Oro har, martxotik lekora egin behar ziren ekitaldi frango ezeztatuak izan dira bainan elkarteek aitzinetik gastu batzu ukan zituzten, hala nola komunikaziorako, logistika edo ibilmoldearentzat. Beste ekimen batzu udazkenera geroratuak izan dira, maiz tamaina ttipiagoko gertakariak proposatuz bainan horiek ere eginen ote diren ez dakigu, zorigaitzez virusa baita egoera honen jaun eta jabe. Halere, kasu gehinetan, ikusgarriak datorren urtera pusatuak dira bainan antolatzaileek oraindik behar dituzte halere prestatu. Horrek beste hainbat arazo sortzen ditu, segurtasun neurriak hartu behar baitira errepikapenentzat, artista egonaldientzat, ekoizpen eszenografikoentzat. Alabainan, ikusgarri gela frango erdi-hetsiak dira oraino eta ez dituzte artistak baldintza hoberenetan abegitzen ahal.

Krisia sanitario honek badakar krisia ekonomikoa, arte et kultura mundua ere derrigorrez hunkitzen duena. Izurrite honek anitz elkarte eta lehenik artistak bortizki hunkitzen ditu. Azken egun hauetan, nola gobernuak hala tokiko erakundeek laguntza preziagarriak proposatu dituzte oroz gainera aldizkako artisten estatusarentzat bainan zorigaitzez frangok ez dituzte laguntza horiek eskuratzen ahal, hala nola teknikalari, arte eta kulturen lan egiten duten elkarte eta lantegi ttipiek, eta abar. Nolaz kontzertu, festival edo herriko besta batzu ezeztatuak izanen diren, artistek –eta haien familiek– argazki pairatuko dute egoera hau. Azkenik, erran daiteke ere aurten programatuak izan behar zuten sorkuntza artistikoak ez direla frango 2021ean hedatuak izaiten ahalko, kultura egiturek datorren urtean lehenetsiko baitituzte aurten egin ahal ez dituzten ikusgarriak.

Dudazko denbora hauetan, Euskal kultur erakundeak bere ahalekin araberako laguntza ekarriko die, bultzatuko eta egoerari bezainbat biztanleei egokituko dituzten egitasmoetan parte hartuz. Horretarako, garrantzitsua iruditzen zaigu Euskal Herriko aktore ezberdinekin (jende, elkarte, artista, erakunde, ...) partaidetzan lan egitea eta ekimen kolektiboak lehenestea, bakoitzaren gaitasunekin egin beharren koherentzia eta osagarritasuna bilatzeko gisan.



**Covid-19 izurriteak  
ekarri hetsialdiaren  
lehen egunetan berean,  
Euskal kultur  
erakundeak bi lan  
ardatz bultzatu ditu :**

**01**

**Elkarte kideen aholkatzea eta diru partaidetzen segurtatzea ; hurbileko laguntza ekartzea**

- **Idatzizko kontsulta baten egitea.**
- **Elkarteekin telefonoz elkarrizketatzea.** Lantaldeak elkarrekin eta artistekin hurbileko harremanak ukan ditu. Ondorioz, 100 bat elkarte deituak izan dira, berme morala ekartzeko eta krisia egoera horretan zituzten arazoetaz mintzatzeko eta lehen erantzun baten emaitako.
- **diru laguntzak.** Elkarrizketa horietatik landa, EKEk urgentzian diru laguntza batzu eman ditu (aitzinikusia zen laguntzaren %70a emanez), bereziki otsaila eta maiatza artean egin beharrak ziren ekitaldientzat, helburua zelarik elkarrekin diru-egoeraren hobetzea.

**02**

**EKE-ko kultura baliabide numerikoen baloratzea hetsialdi denboran**

Hetsialdi denboran, EKE-k urririk sarean ezarri ditu euskal kulturari lotu baliabide numerikoak : Mintzoak.eus plataforma, Soka erakusketa, mintzaldi zientifikoak (etnopoloa labelaren babesean), munduko lehen gerla denborako euskal presoen grabaketak, Euskaldunen Argentina erakusketa,...

Sareratu baliabide horiek arrakasta handia ukan dute eta EKE-k ondare bizidunaren alorrean eraman lana ezinago hobeki baloratu dute.

Froga bezala, UNESCO erakundeak hetsialdi denboran munduko ondaretaz ideki webgune berezian EKE-ren ataria aitzinean ezarri du bai eta ere urteetan ekoiztu euskarri numeriko guziak.

Badakigu koronabirusaren osasun krisia honek kultura eta arte alorrean jadanik eragin handiak dituela eta geroan ere ukanen dituela. Ondorioz, apiril hondarrean, EKE-k inkesta bat abiatu du, 2020an proiektu bat duten elkarte-kideei zuzendua dena.

Galdesorta horretan galdetua da bereziki elkartearen egoera, gizatiar eta diru baliabideak, proiektuen egoera, diru beharren

azterketa, jadanik egin gastu batzuen bilana, adibidez logistika, komunikazio edo artisten ordainketa aldetik.

Gaur egun, 89 erantzun ukan ditugu eta goizegi bada ere izurrite honek euskal kulturarentzat ukanen dituen eraginen aztertzeko, gutienez lehen ondorio zenbait jadanik agertzen dira.



## **EKE-ko elkarte-kideei zuzendu idatzizko kontsulta: Covid-19aren eraginak kultura alorrean**

Jose Valderrey – Dantzan CC-BY-SA

Beraz, txosten honetan agertzen diren emaitzak bapatekoak dira ; udazkenean ikerketa hau sakondua izanen da, oroz gainetik udan zehar elkarte eta artistek eramanen dituzten ekintzen arabera.

Bestalde, irailean hobeki ikusiko da ere elkartearen egitasmoentzat krisia honek ukan duen eragina. Halaber, elementu berri batzuek begibistan ukanen ditugu, bereziki egoera honetan elkarteek eta artistek – amatur eta profesionalak – proposatuko dituzten ekimen artistikoetatik.



# Proiektuak

- **Egutegia**
- **Eskoletako ekitaldiak**
- **Ikusgarrigintza**
- **Festibalak eta beste gertakariak**

# Gauzatu proiektuek arlo anitz lantzen dituzte...

Musika, entzunezko sorkuntzak



27

Arte bisualak



12

Antzerkia



9

Dantza



8

Literatura



7

Diziplina anitzeko proiektuak



22

Kultura ondare immateriala



4

## ...proposamen artistiko ezberdinen bidez...

34

Ikusgarri

19

Festival

7

Artista egonaldi

5

Ikerketa proiektu eta mintzaldi ziklo

24

Hedapen proiektu

## ...eta amaturrak eta profesionalak biltzen dituzte.

14

Proiektu

Amaturrek eramanik

32

Proiektu

Artista profesionalak sorturik

43

Proiektu

Amaturrek bultzaturik, profesional batzuen parte hartzearekin

# Egutegia

5

proiektu

Urte hastapenean,  
bururatuak izan dira.

24

proiektu

Antolatzaileek data  
gibelatu dute...

23

proiektu

...2020ko udazkenera.

...2021era.

Aurreikusi egutegia  
atxikitzen dute.

16

proiektu

Antolatzaileek ez dute  
erabakirik hartu.

21

proiektu



## Eskoletako ekitaldiak

Elkarte batzuk arartekolaritza egitasmoak eraman ahal ukan dituzte lanabes numerikoei esker (bisio-konferentziak, ikaskuntzarako plataformak, email, eta abar) : irakaslearekin lankidetzan, animatzaileak ikasleen sorkuntza lanak babestu ditu, eta ondorioz egitasmoak bururatu. Beste batzuk ekintzak 2020ko udazkenara geroratu dituzte, animatzaileen eta ikasleen segurtasun protokoloak bideratzen ahal badira. Beste kasu batzuetan, egitasmoak ez dira 2020ean bururatzen ahalko eta 2021eko, irakasleak finkatu beharko du nola taldeen antolaketa eta osaketa berrikusten ahalko duen

(ikasle batzuen galtzea CM2 klasekoak direlarik, klase berrien parte hartzea egitasmoa berrabiarazteko). Azpimarratu behar da ere kurtso batzu berriz abian ezarriak izan direla baldintza berezietan eta egitasmoen idazketa eta koordinazioa ez direla arduradunen lehentasunetan. Halere, ekaineko hilabete guzian, eskolen eta elkarten arteko topaketak izan dira eta hor egoerari egokitu egitasmoak eta aterabide ezberdinak landuak izan dira.


## 42 proiektu

**ikusgarriak, euskal  
artisten programazioa edo  
artista egonaldiak dira.**

Artisten eta konpainien lana bi mailetan hunkia izan da : sorkuntzan eta hedapenean. Frangotan sorkuntza egonaldiak eta errepikapenak ezeztatuak izan dira eta kasu gehienetan atzerapena aitzinikusia bada ere, ez da orainokoa data finkorik. Ez da egutegirik ere ezartzen ahal mugazgaidiko ekoizpenentzat edo hegoaldeko artistek parte hartzen duten ikusgarrientzat, muga hesteak edo artisten mugikortasunerako trabek ekarri ondorioengatik.

Artista frangok sorkuntzetarako lan edo ikerketak berriz hasi nahi badituzte ere, ez dakite noiz eta nola programatuak izanen diren.


Ikusgarri gelentzat berdin : hetsialdi denboran, programazioa gelditua izan da eta egoeraren arabera gauzak aldatzen ari dira, beti ere osasun-neurriak errespetatuz (urruntasun fisikoa, espazioen antolaketa,...).



## Festibalak eta beste gertakariak

orotara  
20 proiektu

2020ko edizioa ezeztatu ez duten antolatzaileak pentsaketan ari dira nola egokituko duten beraien programazioa (formula arinagoak proposatuz) ; arras ontsa badakite ez ohiko erara egin beharko dutela : sartzeak mugatuz, formato ezberdinak eginez egoeraren arabera.





## **Diru baliabideak**

- **Egitasmoari lotu gastuak**
- **Mezenasgoa eta dirulaguntza pribatuak**
- **Elkarte enplegatzailleak**

## Egitasmoari lotu gastuak

Covid-19 krisiarekin, elkarteen modelo ekonomiko guzia hunkia da.

Langileak ordaintzen dituzten elkarteek epe laburrera ihardokitzen ahal dute, gobernuak edo tokiko erakundeek ekarri laguntzei esker, baina jadanik aurreikusten dute diru desoreka bat 2020eko eta iraileko sartzea guziz gogorra izanen zaie.

Martxo eta maiatza artean egin behar ziren egitasmoak ez dira egin ahal izan. Halere, 44 elkarteek gastuak ukan dituzte (20 000 euro arterainokoak).

**44 elkarteek  
gastuak ukan  
dituzte**

**15 elkarteek gastuak ukan dituzte arlo ezberdinetan  
(komunikazioa, artisten ordaintzea, logistika...)**

**6** proiektuek komunikazio gastuak baino ez dituzte

**7** proiektuek logistika eta teknika gastuak ukan dituzte.

**9** elkarteek gastuak ukan dituzte, artisten errepikapenen edo musika moldaketen ordaintzeko.

Beste elkarteek ez dute zehaztu zer gastu mota ukan duten.

Elkarte horientzat, sozial alorrak derrigorrezko gastuak erakarri ditu. Halere gobernuak eta tokiko kolektibitateek ekarri laguntzak baliatu dituzte. Ondorioz, 29 elkarteek langileei proposatu die telelanez edo langabezia partzialean aritzea (erdiek baino gehiagok bi opzioak batu dituzte). Ustegabeko edo aldizkako langileak dituzten elkarteek telelana edo langabezia partziala 5 kasutan baizik ez dute egin ahal izan.

## Elkarte enplegatzaileak

Elkarteek espero dute dirulaguntzak mantenduak izanen direla, nola gastuen estaltzeko, hala aitzin-aurrekontuen oreka segurtatzeko. Azpimarratzekoa da festibalen edo artisten programazioentzat, diru sartzeen murrizketak eragin ekonomikoak ukanen dituela eta ondorioz, autofinantzaketaren beherakada.



## Mezenasgoa eta dirulaguntza pribatuak

Elkarte batzuk pentsatzen zuten beren egitasmoen parte bat diruztatzea gisa hortara. Gaur egun, ez dakite xuxen nola egingen duten : lantegi frango hetsiak egon dira hetsialdi denboran eta berriz abiatuko dira, pixkanaka-pixkanaka, osasun-neurriak errespetatuz. Elkarteek badakite kultura mezenasgoa ez dela haien lehentasunetan izanen, jakinez lantegiek arazo ekonomikoak jasan beharko dituztela.



# Berriz hastea

Ezbaian diren elkarteentzat antolatzeko kontzertuak, festibalak edo oraino herriko bestak, baina ere arte konpainientzat, garrantzitsua da proposamen alternatiboek pentsatzea :

Ikusgarriak  
egitea espazio  
idekietan

Euskarri  
numerikoen  
erabiltzea  
hedapenarentzat

Formula arinak  
asmatzea tokiko  
eta hurbileko  
programazio  
batekin

Kanpoko edo etxe  
barnetako  
ikusgarriak  
antolatzea

Laguntzen mantentzea 2020an egingen diren egitasmoentzat, hauek geroratuak badira ere udazkenera, bainan ere jadanik gastuak egin dituzten elkarten laguntzea (komunikazio gastuak, artista egonaldiak,...). Lehenetsiak izanen dira artisten parte hartzeak, aldizkako artista izan ala ez, sorkuntza ekimen batzutan (taula zuzendaritza, musika moldaketak, eta abar).

## **Euskal kultur erakundearen proposamenak**

**Elkarte kideentzat ekarri aholku eta laguntza iraunkorrarekin**

**Formakuntza ibilbide batzuen antolatzea EKE-ko elkarte kideen beharrei erantzuteko. Profession Sport eta Loisirs 64 elkartearekin lankidetzan :**

Egoerari egokitu lau gaualdi programatuak izanen dira irailtik lekora gai ezberdinen inguruan : aitzin-aurrekontuen egitea, lantalde baten animazioa, mugazgaindiko egitasmoak,...

Bestalde, « Jarraitze kolektiboa » deitu formakuntza bat proposatua izanen da EKE-ko 6 elkarte kideei, gai honen inguruan : « Kultura egituren arteko lankidetzaren erronkak ».

Sintesia hau EKE-ko Administrazio kontseiluan aurkeztua izanen da irailean, eguneratu ondoren, beharrez gure elkarte kideen eta arte egitasmoak egoera honi egoki dituzten artistei gure diru laguntzen edo partaidetzen arrabideratzeko, ez ohiko krisia latz honetan.



**Galdeketa**

## Elkartearen informazioak

Elkartearen izena Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

Harremanetarako pertsona Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

Telefono zenbaki bat Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

Email-a Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

Elkartek langileak ba ote ditu?

- Ez
- Bai, mugagabeko lan kontratua
- Bai, lan kontratu mugatua
- Bai, Noiztenkako lan kontratua (artistak)

Besterik : Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

## Langileak eta elkartearen proiektua

Zer ondorio du egoera honek elkartearen proiektu orokorrean? (diru sartzeak, elkartek antolatzen dituen ekitaldiak, diru galtzeak, sortzen diren zalantzak...)

Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

Zenbat langile badira?

Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

Itxialdiaren ondotik, zer neurri hartu ahal izan dituzu elkarteko langileentzat?

- Telelana
- Langabezia partziala
- Lantokian ari dira prebentzio neurriak errespetatuz

Besterik : Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

Xehetasun batzu gehitu nahi badituzu, espazio hau erabil dezakezu.

*Hurrengo ataletan, arreta elkartek aurkeztu zuen proiektuan jarriko dugu.*

Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

## 2020ko proiektua

Proiektua(k) Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

Ekitaldi mota 1/2

- Festibala
- Ikusgarria
- Mintzaldia
- Artista egonaldia
- Kultura astea
- ikerkuntza lana

Besterik : Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

Ekitaldi mota 2/2

- Ekitaldi puntuala
- Urtero antolatzen dena
- Elkartearen proiektu orokorra

**Parte hartzaileak**

- Artista amaturrak bakarrik
- Artista amaturrak baina profesional batzu inplikatuak dira proiektuan
- Profesionalak bakarrik

Beste : Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

**Elkarteak aurreikusten zuen egutegia :**

Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

**Gaur egungo egoerak eraginak ditu pentsatutako egutegian?**

- Ez. Proiektua bururatua izan da.
- Ez. Pentsatu genuen egutegia atxikitzen dugu.
- Bai. Proiektua atzeratu behar dugu
- Bai. Proiektua ez da 2020an egingen.
- Mementoz ezin dugu erran

**Atzeratze data**

**Zuen ustez, ekitaldia noiz izanen litzateke?**

Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

**Proiektuari lotu gastuak**

**Elkarteak gastu batzu jada ukan ditu?**

- Bai
- Ez

**Zein alorretan ?**

- Komunikazioa
- Logistika
- Teknika

Beste bat : Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

**Zenbatekoa**

Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

**Ekitaldia ez egin arren, artistei / intermitentei ordaintzeko zerbait gogoia duzue?**

- Bai
- Ez

**Zenbatekoa ?**

Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

**Ekitaldia ez delako egin, elkarteak diru galtzeak ukan(en) ditu? (adibidez : ez baita salmentarik izanen)**

- Bai
- Ez

**Zenbatekoa ?**

Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.

**Erantzun batzu sakondu edo informazio batzu gurekin partekatu nahi badituzu, espazio hau erabil dezakezu.**

Cliquez ou appuyez ici pour entrer du texte.